ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA

Aurkibidea

I. Alderdi orokorrak eta kontratuaren konfigurazioa.

1.- Kontratuaren xedea.

2.- Kontratatu beharraren justifikazioa.

3.- 3.- Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua eta kontratuaren balio zenbatetsia.

4.- Finantzaketa.

5.- Egikaritzeko epea.

6.- Ordainketa-araubidea.

7.- Prezioak berrikustea.

8.- Informazioa, zerga, ingurumen, emakume eta gizonen berdintasun, hizkuntza berdintasun, enpleguaren babes, lan baldintza eta laneko arriskuen prebentzio, eta datu babesaren arloan.

9.- Kontratuaren araubide juridikoa eta Administrazioaren eskumenak.

10.- Errekurtso araubidea.

II. Kontratatzeko prozedura.

11.- Esleipen-prozedura.

12.- Lizitazio elektronikoa.

13.- Jakinarazpenak eta komunikazioak.

14.- Kontratatzeko gaitasuna.

15.- Bermeak.

16.- Esleipen-irizpideak.

17.- Kontratazio-mahaia.

18.- Proposamenak aurkezteko epea eta ezaugarriak, eta klausula-agiriak eskuratzeko bidea.

19.- Proposamenak aurkezteko modua.

20.- Aurkeztutako gutun-azalen irekitzea eta eskaintzak balioestea.

21.- Esleipena eta formalizazioa.

22.- Kontratua ez egiteko erabakia eta prozeduran atzera egitea.

III. Kontratua egikaritzea

23.- Kontratua egikaritzearen araubide orokorra.

24.- Kontratua egikaritzeko baldintza bereziak.

25.- Kontratuaren aldaketak.

26.- Kontratuaren lagapena.

27.- Azpikontratazioa.

28.- Konfidentzialtasuna eta izaera pertsonaleko datuen babesa.

29.- Prestazioa hartzea eta berme aldia.

30.- Jabetza intelektualaren edo industrialaren eskubideak.

31.- Zigorrak kontratua ez betetzeagatik.

32.- Kontratua suntsiarazteko arrazoiak.

Eranskinen zerrenda

I. ALDERDI OROKORRAK ETA KONTRATUAREN KONFIGURAZIOA

1. KONTRATUAREN XEDEA

1.1.- Kontratuaren xedea izango da agiri honen ezaugarri-koadroaren 3. atalean deskribatutako zerbitzuak ematea, betiere espedientean ageri den, eta kontratu-izaera izango duen, dokumentazio teknikoarekin bat etorriz.

1.2.- Atal horretan horrela ezartzen denean, sortaka egingo da lizitazioa, bertan deskribatzen diren baldintzak eta mugak aplikaturik, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL) 99. artikuluak dioenarekin bat. Kasu horretan, agiri honetan kontratuari edo enpresa esleipendunari egindako erreferentzia guztiak kontratuaren xedea banatzen den sorta bakoitzari egindakoak direla ulertuko da.

1.3.- Kontratuen Hiztegi Komuneko (CPV) nomenklaturari dagokion kodifikazioa aipatutako ezaugarri-koadroaren 3. atalean dago jasota.

2. KONTRATATU BEHARRAREN JUSTIFIKAZIOA

Kontratazio-espedientean jasota daude agiri honetan aipatzen den kontratua egitea justifikatzen duten arrazoiak.

3.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

3.1.- Kontratuaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren zenbatekoa, SPKLren 100.2 artikuluaren arabera kalkulatuta, ezaugarri-koadroaren 5. atalean adierazitakoa izango da, gehienez. Lizitatzaileek aurrekontu hori hobetu ahal izango dute.

3.2.- Kontratuaren balio zenbatetsia, SPKLren 101 artikuluaren arabera kalkulatuta, ezaugarri-koadroaren 6. atalean adierazitakoa da.

Balio hori kontuan hartu da bai kontratu honi aplikatuko zaion adjudikazio prozedura eta izango duen publizitatea aukeratzeko, bai eta lizitatzaileen gaitasun baldintzak eta aplikatzeko errekurtsoen araubidea finkatzeko. Balio zenbatetsi horretan sartzen dira, horrela aurreikusiz gero, ezaugarri koadroaren 20. atalean adierazitako balizko kontratuaren aldaketak.

3.3.- Balio zenbatetsia kalkulatzeko aplikatu den kalkulu-metodoa honako hauen batura izan da: lizitazioaren oinarrizko aurrekontua, BEZik gabe, aurreikusitako luzapenen zenbatekoa eta kontratuaren ezaugarrien koadroaren 21. atalean aurreikusitako aldaketak. Kalkulua egiteko erabilitako prezioek kontratuaren gauzatzear dagozkion zuzeneko eta zeharkako kostu, zerga eta mozkin guztiak estaltzen dituzte..

4. FINANTZAKETA

4.1.- Kontratuaren finantzaketa ezaugarri koadroaren 7. atalean adierazitako entitateen kontura izango da.

4.2.- Kontratua egikaritzeko kalkulatutako gastuari aurre egiteko behar adinako kreditu egokia eta nahikoa dago ezaugarri koadroaren 8. atalean ezartzen diren urteroko zenbatekoekin bat etorriz.

4.3.- Baldin eta, SPKLren 117.2 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz eta ezaugarrien taulan aurreikusitakoaren arabera, espedientea aldez aurretik izapidetzen bada, kontratua adjudikatu ahal izateko kreditu egoki eta nahikoa egotearen baldintza etengarria bete beharko da, dagokion ekitaldian kontratutik eratorritako betebeharrak bermatze aldera.

4.4.- Segidako traktuko kontratua denean, lehen ekitaldirako finantzaketa ezaugarri koadroaren 8. atalean jasotzen den aurrekontu partidaren kontura egingo da eta aurrekontuen arloko eskumena duen organoak behar diren kredituak ezarriko ditu kontratuak eragingo dien hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan.

5. EGIKARITZEKO EPEA

5.1.- Kontratua egikaritzeko epea izango da ezaugarri-koadroaren 4. atalean ezarritakoa, edo, lizitatzaileek epea laburtzea proposatu ahal dutenean, enpresa esleipendunak eskaintzen duena.

Epe hori kontratua formalizatu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasiko da, eta behin epea igarota kontratista berandutze-egoeran dagoela ulertuko da, eta horretarako ez da beharrezkoa izango Administrazioak aldez aurretik agindeirik egitea.

5.2.- Kontratua luzatu ahal izango da, baldin eta hala aurreikusten bada aipatutako ezaugarri-koadroaren 4. atalean. Luzapena nahitaezkoa izango da kontratistarentzat, SPKLren 29. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

6. ORDAINKETA-ARAUBIDEA

6.1.- Zerbitzuaren ordainketa ezaugarri koadroaren 9. atalean adierazitako moduan egingo da, betiere, entrega egin eta adostasunez jaso ondoren eta fakturak edo dokumentu baliokideak aurrez aurkeztuta. Horretarako, entrega-datatik 30 egun naturaleko epea izango du kontratistak, faktura aurkezteko.

6.2.- Kontratistak eskubidea izango du halaber, kontratuaren objektuan dauden eta kontratua egikaritzeko diren prestakuntza-eragiketen zenbatekoaren adinako konturako ordainketak jasotzeko, ezaugarrien koadroaren 9. atalean adierazitako baldintzen arabera. Konturako ordainketa horiek bermea jarrita ziurtatu beharko dira.

6.3.- SPKLren 198. artikuluan ezarriarekin bat, emandako zerbitzuak kontratuan xedatuarekin bat datozela egiaztatzen duten dokumentuak onartzen diren datatik hurrengo hogeita hamar egun naturaleko epearen barnean prezioa ordaindu beharko du Administrazioak; eta berandutzez jardunez gero, hogeita hamar egun naturaleko epe hori betetzen denetik aurrerako berandutze interesak eta kobrantza kostuengatiko kalte-ordainak ordaindu beharko dizkio kontratistari, artikulu honetan bertan aurreikusten den moduan.

6.4.- Edonola ere, enpresa kontratistak ez badu erregistro administratiboan faktura aurkezteko duen hogeita hamar egun naturaleko epea betetzen, interesak ez dira hasiko sortzen, harik eta faktura dagokion erregistroan aurkeztu eta hogeita hamar egun natural igaro arte Administrazioak, hala badagokio, faktura ontzat eman eta ordaindu gabe.

6.5.- Kontratuaren finantzaketan Debako Udalak eta beste entitate edo organismo batzuek parte hartzen badute, finantzaketan konpromisoa duen alderdi bakoitzak partaidetza horrekiko proportzioan ordainduko dio kontratistari kontratu betea, ezaugarrien koadroaren 7. atalean jasotzen den moduan eta proportzioan.

6.6.- SPKLren 200. artikuluan xedatuarekin bat, eta bertan ezartzen diren baldintzetan, kontratistek, legez ezarritako bideren batetik, hirugarren pertsona bati laga ahal izango diote kontratuaren prezioa kobratzeko duten eskubidea. Lagapenak ondorioak izan ditzan eta Administrazioak lagapen hartzaileari ordaintzeko agindua eman dezan, Administrazioari modu frogagarrian jakinarazi beharko zaio lagapen horretarako akordioa.

7. PREZIOAK BERRIKUSTEA

7.1.- Prezioak berrikusi behar badira, horrela adieraziko da ezaugarrien koadroaren 5. atalean eta bertan jasotako formula aplikatuko da.

7.2.- Hala dagokienean, prezioak berrikusteko SPKLren 103. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako moduan jokatuko da.

8.- INFORMAZIOA, ZERGA, INGURUMEN, EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUN, HIZKUNTZA BERDINTASUN, ENPLEGUAREN BABES, LAN BALDINTZA ETA LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIO, ETA DATU BABESAREN ARLOAN

Organismo hauetan lortu ahal izango da honelako gaiei buruz indarrean dauden obligazio eta xedapenen informazioa:

a) Fiskalitatea: Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentua, eta gainerako zerga administrazioetan.

b) Enpleguaren babesa, lan baldintzak eta lan arriskuen prebentzioa, eta desgaituak gizartean eta lan munduan txertatzea: Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Saileko Laneko eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritza.

c) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna: Emakunde organismo autonomoa.

d) Hizkuntza berdintasuna: Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordetza.

e) Ingurumenaren babesa: IHOBE SA (Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa).

f) Izaera pertsonaleko datuen babesa: Datuak Babesteko Euskal Agentzia.

9. KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA ETA ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK

9.1.- Agiri honetan oinarrituta egingo den kontratua administrazio-kontratua izango da, eta dokumentu honek eta berari erantsitako gainerako dokumentazio teknikoak arautuko dute. Horretan xedatuta ez dagoen guztiak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean (SPKL) xedatutakoa bete beharko du, eta, lege horren kontra ez doan guztian, honako hauetan xedatutakoa aplikatuko da: Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra (urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsia), maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua (zeinak partez garatzen baitu Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea) eta administrazio publikoen kontratazioan aplikatzekoak diren kasuan kasuko gainerako arauak. Ordezko gisa, zuzenbide administratiboko gainerako arauak aplikatuko dira eta, horiek izan ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

Administrazio-baldintza partikularren agiri hau eta espedienteari atxikitako gainerako agiriak bat etorri ezean, agiri honetan xedatutakoak izango du lehentasuna.

9.2.- Administrazioari honako eskumen hauek dagozkio: kontratua interpretatzea, kontratua egikaritzeko dauden zalantzak argitzea, kontratua interes publikoko arrazoiengatik aldatzea, kontratuaren egikaritzearen ondorioz kontratistari egotz dakiokeen erantzukizuna zehaztea, kontratuaren egikaritzea etetea, kontratua suntsiaraztea erabakitzea eta suntsiarazpenaren ondorioak zehaztea; betiere SPKLn eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritako mugen barruan eta haietan jasotako baldintza eta ondorioak betez..

10. ERREKURTSO ARAUBIDEA

10.1.- SPKLren 44. artikuluaren 1. puntuan aipatzen diren zenbatekoak baino handiagoa bada, kontratazio-arloko errekurtso berezia jarri ahalko da Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren aurrean, SPKLren 44. artikulutik 60. artikulura artekoek araututakoaren arabera.

10.2.- Bestelakoetan, kontratu honen ondorioz sor daitezkeen gai eztabaidagarriak kontratazio-organoak ebatziko ditu; administrazioaren bideari amaiera emango diote organoaren erabakiek, eta horien aurka Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren uztailaren 13ko 29/1998 Legeak aurreikusten dituzten errekurtso arruntak jarri ahal izango dira.

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

11. ESLEIPEN-PROZEDURA

11.1.- Kontratazio espedientea ezaugarrien koadroaren hasieran aurreikusitako prozedura eta tramitazioari jarraikiz izapidetuko da.

11.2.- Ezaugarrien koadroaren hasieran espedientearen presako tramitazioa zehazten denean, berekin ekarriko du lizitazio eta adjudikazio eta formalizaziorako ezarritako epeak murriztea, SPKLren 119. artikuluan eta horrekin bat datozenetan ezarritako erregelekin bat.

12. LIZITAZIO ELEKTRONIKOA

Ezaugarrien koadroaren hasieran horrela jasotzen denean lizitazioa bitarteko elektronikoz egingo da, KONTRATAZIO PUBLIKOA EUSKADIN/CONTRATACIONPUBLICA EN EUSKADI plataforman dagoen lizitazio elektronikoko sistemaren bidez.

13. JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK

13.1.- Espediente honi lotutako jakinarazpen eta komunikazio guztiak bitarteko elektronikoz egingo dira, KONTRATAZIO PUBLIKOA EUSKADIN/CONTRATACIONPUBLICA EN EUSKADI plataforman dagoen lizitazio elektronikoko sistemaren bidez.

13.2.- Jakinarazpena eskuragarri jarri eta hamar egun naturalen epean hartzaileak onartu ez badu edo uko egin badio, iraungitzat joko da, eta betetzat joko da jakinarazteko izapidea.

13.3.- Komunikaziotzat joko dira argibide-eskaerak eta SPKLren 44.2 artikuluaren b) letran sartzen ez diren bestelako izapide-egintzak.

14. KONTRATATZEKO GAITASUNA

14.1.- Kontratazio-prozedura honetan parte hartu ahal izango dute pertsona natural edo juridikoek, espainiar zein atzerritarrek, baldin eta jarduteko erabateko gaitasuna badute, kontratatzeko inolako galarazpenek eragiten ez badie, eta ezaugarrien koadroaren 12. atalean ezarritako kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko eta profesionala egiaztatzen badute.

Araudi aplikagarriak ezartzen duela-eta esleipendunari eskatzen zaionean bere antolakundeari, irabazien xedeari, finantzaketa sistemari edota beste batzuei buruzko zenbait beharkizun betetzea adjudikazio prozeduran parte hartu ahal izateko, alderdi horiek prozeduran aurkezten denean egiaztatu beharko ditu.

14.2.- Aurreko atalen gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debekurik ez izateari buruz aipatzen diren inguruabarrak eskaintzak aurkezteko azken egunean bete behar dira, eta kontratua burutzen den unean mantendu egin beharko dira.

14.3.- Lizitatzaileek, halaber, kontratuaren objektu diren prestazioak egikaritzeko beharrezkoa den enpresa edo lanbide gaikuntza izan beharko dute, hala badagokio.

14.4.- Pertsona juridikoei ez zaie kontraturik adjudikatuko, baldin eta estatutuen edo sorrerako araudiaren arabera berezko dituzten helburuak, objektua edo jarduera esparrua kontratuaren prestazioekin bat ez badatoz.

14.5.- Era berean, Administrazioak kontratuak egin ahal izango ditu aldi baterako eratzen diren enpresa elkarteekin; horrelakoetan, ez da beharrezkoa kontratua adjudikatzen zaion arte enpresa elkartea eskritura publiko bitartez eratuta egotea.

Aldi baterako enpresa elkarte baten osaera aldatzen denean kontratua formalizatu aurretik eta ondoren, SPKLren 69. artikuluaren 8. apartatuan eta ondorengoetan jasotakoari jarraituko zaio. Horretarako, zer inguruabar gertatu den jakinarazi beharko zaio kontratazio organoari.

14.6.- Europar Batasuneko edo Europako Ekonomia Esparrua sinatu duten estatuetako enpresei eta Batasunetik kanpoko enpresei dagokienez, SPKLren 67. eta 68. artikuluetan jasotakoa aplikatuko da

15. BERMEAK

15.1.- Behin behineko bermea: SPKLren 106. artikuluan aurreikusiarekin bat, aparteko egoera gisa, interes publikoko arrazoiak tarteko eta espedientean justifikaturik, kontratu honen kasuan behin-behineko bermea eratzea eskatzen bada, ezaugarrien koadroaren 16.1. atalean ageri dena izango da berme horren zenbatekoa.

Berme horren formari eta baldintzei dagokienez, SPKLren 106.3 eta 108.1 artikuluetan jasotakoa beteko da.

15.2.- Behin betiko bermea: ezaugarrien koadroaren 16.2. atalean behin betiko bermea eratzeko betebeharretik salbuespena ezartzen ez bada, SPKLren 145. artikuluaren arabera eskaintzarik onena aurkezten duen lizitatzaileak behin betiko berme bat eratu beharko du. Bermea lizitatzaileak eskainitako amaierako prezioaren % 5 izango da edo, kontratua unitateko prezioen arabera formulatzen denean, finkatutako gehieneko prezioa kontuan hartuta kalkulatuko da ehunekoa, kasu bietan, balio erantsiaren gaineko zerga kanpoan utzita.

Berme horren eraketa hamar egun balioduneko epean egiaztatu beharko da, SPKLren 150.2 artikuluan aipatutako errekerimendua jaso eta biharamunetik aurrera, eta SPKLren 108. artikuluan aurreikusten den moduetako edozeinetan eratu ahal izango da.

Eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak berari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla medio behin betiko bermea emandako epean eratzen ez badu, Administrazioak ez du haren aldeko adjudikazioa egingo, eta 150 artikuluaren 2. apartatuaren azken-aurreko paragrafoan adierazitakoa aplikatuko da.

Bermea itzultzeko edo ezeztatzeko, osorik edo hala badagokio zati batean, SPKLren 111. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da, bermealdia amaitu eta esleipendunak kontratuan ezarritako betebehar guztiak bete ondoren.

15.3.- Berme osagarria: ezaugarrien koadroaren 16.3. atalean horrela jasotzen bada, eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak berme osagarri bat eratu beharko du bertan jasotako zenbateko eta baldintzatan

16. ESLEIPEN-IRIZPIDEAK

Kontratua adjudikatzeko oinarri izango diren eskaintzak balioesteko irizpideak eta haien haztapena ezaugarrien koadroaren 17. atalean jasotzen dira.

17. KONTRATAZIO-MAHAIA

Kontratazio-mahaia ezaugarrien koadroaren 18. atalean adierazten diren pertsonek osatuko dute.

18. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA ETA EZAUGARRIAK, ETA KLAUSULA-AGIRIAK ESKURATZEKO BIDEA

18.1.- Lizitazio hau Udalaren kontratatzaile-profilean argitaratuko da, zeina Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Plataforman baitago, eta hala dagokionean Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean (EBAO) ere argitaratuko da.

Euskadiko Kontratazio Publikoko kontratatzailearen profilerako sarbidea:
https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/

Debako Udalaren kontratatzailearen profilerako sarbidea:
https://www.deba.eus/eu/tramiteak/kontratatzailearen-profila

Kontratatzailearen profilean eskuratu ahal izango dira baldintza agiriak eta dokumentazio osagarria.

18.2.- Proposamenak euskaraz edo gaztelaniaz idatzi beharko dira, eta bitarteko elektronikoz aurkeztu behar dira Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataformaren bidez, ezaugarrien koadroaren 26. atalean jasotzen den epearen barruan.

- Lizitazio elektronikoari buruzko kontsultei erantzuteko kontaktua: 945 016 298.
- Agiri honen I. eranskinean jasotzen dira lizitazio elektronikorako jarraibideak.

18.3.- Lizitazio-prozedura honetan, ez da onartuko eskaintzarik gorago adierazitako bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu ezean.

Eskaintza bateko dokumenturen bat ezin bada behar bezala ikusi, gorabehera hori jakinarazi eta gehienez 24 orduko epea izango du lizitatzaileak fitxategi akastunean zegoen dokumentua formatu digitalean aurkezteko. Geroago aurkeztutako dokumentu horrek ezin izango du aldaketarik izan eskaintzan aurkeztutako jatorrizko dokumentuaren aldean. Kontratazio-organoak edo kontratazio mahaiak ikusten badute dokumentuak aldaketaren bat izan duela, baztertu egingo da lizitatzailearen eskaintza. Zuzentzeko aukera hori ez zaie aplikatuko, eta baztertu egingo dira, aurkeztutako fitxategietako edozeinetan birusen bat duten eskaintzei, baldin eta birus hori irakurtzea edo haren edukira sartzea eragozten badute.

18.4.- Lizitatzaileek baldintza-agiriei edo dokumentazio osagarriari buruz informazio gehigarria eskatzen badute, beranduenez proposamenak jasotzeko ezarritako azken eguna baino sei (6) egun lehenago emango zaie informazio gehigarri hori, baldin eta gutxienez proposamenak jasotzeko muga-eguna baino hamabi (12) egun lehenago egin badira eskariak.

SPKLren 136. artikuluaren 2. eta 3. ataletan xedatutakoaren arabera, klausula-agiriei edo dokumentazio osagarriari buruzko informazio gehigarria aipatutako epeetan entregatzerik izan ez bada eskaintzak jasotzeko epea luzatu egingo da, ukitutako hautagaiek eskaintzak egiteko behar duten informazio guztia jasotzeko egokitzat jotzen den adina.

- Alderdi teknikoei eta juridikoei buruzko kontsultei erantzuteko kontaktua: idazkaritza@deba.eus

18.5.- Proposamenek administrazio-klausula partikularren agiri honetan ezarritakoa bete beharko dute. Proposamena aurkezteak berekin dakar lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzea

klausula edo betekizun horiek, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe, bai eta kontratazio mahaiari eta kontratazio-organoari baimena ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan, Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edota Europar Batasuneko estatu kide bateko operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatzeko.

18.6.- Lizitatzaile bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu. Halaber, ezin izango du aldi baterako enpresa-elkarte baten bidez inolako proposamenik aurkeztu, baldin eta aurretik bakarka aurkeztu badu, ezta aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan egon ere. Arau horiek hautsiz gero, ez da onartuko lizitatzaile horrek izenpetutako proposamenik.

18.7.- Lizitatzaileek konfidentzial izenda dezakete eskaintzak egitean berek emandako informazioaren parte bat, informazio publikoa eskuratzeari buruz indarrean dagoen legeriak xedatutakoa eta SPKLn adjudikazioaren publizitateari buruz eta hautagaiei nahiz lizitatzaileei eman behar zaien informazioari buruz dauden xedapenak gorabehera; bereziki, hori egin ahal izango dute beren sekretu tekniko edo komertzialei eta haien alderdi konfidentzialei dagokienez. Udalak ezin izango du informazio hori zabaldu lizitatzailearen baimenik gabe.

18.8.- Lizitatzaileek ezingo dute beren proposamena erretiratu bi hilabeteko epean proposamenak irekitzen direnetik aurrera. Epe hori hamabost egun baliodunez luzatuko da, baxuegi iritzitako eskaintzei dagokienez SPKLren 149. artikuluak aipatzen dituen izapideak bete behar direnean.

Proposamen bat behar ez bezala erretiratzen bada, lizitatzaileak ezingo du Administrazio Publikoekin kontratatu, SPKLren 71.2 artikuluan xedatuarekin bat. Gainera, behin-behineko bermea konfiskatuta geratuko da, SPKLren 106.1 artikuluarekin bat, horrelako bermerik eskatu baldin bada. SPKLren 150 artikuluaren 2. apartatuaren azken-aurreko paragrafoan adierazitakoari jarraituz eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak berari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla medio proposamena erretiratu duela ulertuz gero bertan jasotakoa aplikatuko da.

19. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA

19.1.- Lizitatzaile bakoitzak eskaintza bakarra aurkez dezake, SPKLren 142. artikuluan aldaeren onargarritasunari buruz jasotakoa eragotzi gabe. Halaber, ezingo du beste enpresa batzuekiko aldi baterako elkartea eginez inolako proposamenik aurkeztu, aurretik bakarka aurkeztu badu, ezta aldi baterako elkarte bat baino gehiagotan badago ere. Printzipio hau urratuz gero, aldi berean aurkeztutako eskaintza guztiak ezetsi egingo dira.

Proposamena enpresa elkarte batek egina denean, elkarteko enpresa guztiek izenpetu behar dute, zuzenean edo beren ordezkarien bitartez.

19.2.- Lizitatzaileek hiru gutun-azal elektroniko aurkeztu beharko dituzte, lizitatzaileak edo haren ordezkariak sinatuta; klausula honetan adierazitako edukia izan beharko du bakoitzak.

19.2.1.- «A» GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- «KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA»

19.2.1.1.- Agiri hauek izango ditu «A» gutun-azalak:

a) **Jakinarazpen eta komunikazioak jasotzeko datuak**, agiri honen II. eranskinaren ereduaren arabera.

b) **Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB)**. SPKLren 140. eta 141. artikuluetan aurreikusiarekin bat, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko da, III. eranskinean jasotako jarraibideekin bat beterik, eta lizitatzaileak edo honen ordezkariak sinatuta eta han adierazitako formulario eredura egokituta.

Enpresa lizitatzaileak beste entitate batzuen kaudimena eta bitartekoak baliatzen dituenean, horietako bakoitzeko EKAB bat aurkeztu beharko da.

Kontratuaren xedea sortaka zatitzea aurreikusten denean, baldin eta kaudimen eskakizunak sortatik sortara aldatzen badira, EKAB bat aurkeztuko da sorta bakoitzeko, edo kaudimen-eskakizun berberak dituen sorta multzo bakoitzeko.

c) **Aldi Baterako Enpresa Elkartea.**

Bi enpresa edo gehiago aldi baterako enpresa-elkartean (ABEE) parte hartu nahi badute, dokumentu pribatu bat aurkeztu beharko dute, elkartea osatuko duten enpresen izenak eta inguruabarrak eta bakoitzaren partaidetza adierazita. Horiez gain, esleipendun gertatuz gero ABEEa formalki eratzeko konpromisoa bere gain hartzen dutela adierazi beharko dute (SPKLren 69. artikulua eta APKLEOren 24. artikulua). Agiri hori elkartea osatzen duen enpresa bakoitzaren ordezkariek sinatu beharko dute. Agiri honen IV. eranskinean jasotzen da ABEEa eratzeko konpromisoaren eredua.

Horrelakoetan, ABEEa osatuko duen enpresa bakoitzak bere EKAB aurkeztu beharko du.

d) **Erantzukizunpeko adierazpena, giza baliabideak eta baliabide materialak kontratuaren betearazpenari atxikitzeko**, ezaugarrien koadroaren 13. atalean horrela eskatzen bada eta bertan adierazten diren profil eta zehaztapenei jarraituz.

Agiri honen V. eranskinean jasotzen da eredua.

e) **Erantzukizunpeko adierazpena enpresa taldeari buruzkoa**. Adierazpen honek, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritako baldintzetan lizitatzailea parte den enpresa taldea eta talde bereko sozietate guztiak hartuko ditu.

Ezein enpresa-taldetakoa ez bada, adierazpenak horixe adierazi beharko du.

Agiri honen VI. eranskinean jasotzen da horretarako eredua.

f) **Lizitatzaileen izaera konfidentzialeko dokumentu eta datuei buruzko adierazpena.** Enpresa lizitatzaileek, hala dagokionean, adierazi beharko dute aurkeztutako zer dokumentu administratibo eta tekniko eta zer datu diren, beren ustez, konfidentzialtzat jotzeko modukoak.

Horrez gain, zirkunstantzia hori (gain inprimatuta, bazterrean edo beste edozein modutan) horrela adierazitako dokumentuan bertan jaso beharko da.

Adierazpen hau egin ezean, dokumentu edo datu konfidentzialik ez dagoela ulertuko da.

Agiri honen VII. eranskinean jasotzen da eredua.

g) **Behin-behineko bermea egiaztatzeko dokumentua**, hala dagokionean.

Behin-behineko bermea eskatuz gero, honela egingo da horretarako gordailua:

- Diruzko bermeak direnean, ES15 2095 5034 6910 6002 4600 kontuan egingo da diru sarrera. Horrelakoetan, egindako gordailua egiaztatzen duen frogagiria ere sartu beharko da.
- Kontratazio organoaren aurrean, idatzitako baloreen ibilgetze ziurtagiriak, abalak edo kauzio aseguruen ziurtagiriak direnean.

Aldi baterako enpresa elkarteen kasuan, elkarteko enpresa batek nahiz gehiagok era ditzakete behin-behineko bermea, baina, denen artean, ezaugarrien koadroaren 16. atalean eskatzen den zenbatekora iritsi behar dute, eta elkartea osatzen duten guztiak izanik solidario bermean.

h) Atzerriko lizitatzaileek aurkeztu beharreko dokumentazioko berezitasunak.

Aurreko puntuetan jasotzen dokumentazioaz gain, atzerriko lizitatzaile guztiek **edozein ordenatako epaitegi eta auzitegi espainiarren jurisdikzioaren mende jartzen direla dioen adierazpena** aurkeztu beharko dute, kontratuan zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako, hala dagokionean uko eginez lizitatzaileari egoki dakiokeen atzerriko jurisdikzio foruari (SPKLren 140.1 f) artikulua)

Europar Batasunaren kide edo Europar Espazio Bakarrari buruzko Akordioaren sinatzaile ez diren estatuetako enpresek honako hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

- Enpresak egoitza duen lekuan Espainiak duen Diplomaziako Misio Iraunkorrak edo Kontsuletxeko Bulegoak emandako txostena, horretan adierazita, enpresak aurrez frogatuta betiere, tokiko erregistro profesionalean, komertzialean edo antzekoren batean izena emanda dagoela edo, bestela, tokiko trafikoan ohiz aritzen dela kontratuaren objektu diren jardueren esparruan.
- Elkarrekikotasun txostena, SPKLren 68. artikuluak aipatua, non eta ez diren erregulazio harmonizatupeko kontratuak, zeren eta horrelakoetan txosten horren ordez Diplomaziako Misio Iraunkorraren edo Ekonomia Ministerioaren Kanpo Merkataritzako Idazkaritza Nagusiaren txostena beharko baita, Merkataritzaren Mundu Erakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioaren estatu sinatzaile izaerari buruzkoa.

19.2.1.2.- Kontratazio organoak edo kontratazio mahaiak, edozein unetan, dokumentu bidezko justifikazioa eskatu ahal izango dute, lizitatzaileek, erantzukizunpeko adierazpen bitartez, betetzen dituztela adierazitako baldintzei buruz.

Lizitatzaileek behar besteko epea izango dute eskatutako dokumentazio aurkezteko. Halere, epe hori ezingo da bost egun baliodunetik gorakoa izan, errekerimendua jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Errekerimendua ez bada behar bezala aurkezten aipatu epean, ulertuko da lizitatzaileak kendu egin duela bere eskaintza eta, horrenbestez, prozeduratik kanpo geratuko da.

19.2.2.- «B» GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- «BALIO-IRITZIEN BIDEZKO BALIOESPEN-IRIZPIDEAK»

19.2.2.1.- Ezaugarrien koadroaren 17.1 atalean balio irizpide baten bitartez baloratu beharreko esleipen irizpideak jaso baldin badira, lizitatzaileek **«**B» gutun-azal elektronikoa aurkeztu beharko dute, «BALIO-IRITZIEN BIDEZKO BALIOESPEN-IRIZPIDEAK» izenarekin, eta horretan sartuko dute aipatutako atal hartan eskatutako dokumentazioa.

19.2.2.2.- Artxibo elektroniko honetan ez da inolaz ere sartuko «C» gutun-azal elektronikoan jaso behar duen informaziorik.

19.2.2.3.- Baldintza teknikoak betetzen ez dituzten edota «B» gutun-azal elektronikoan formula bidez balioztatu beharreko dokumentazioa («C» gutun-azal elektronikoa) sartzen duten lizitatzaileak lizitazio prozeduratik at utziko dira.

19.2.3.- «C» GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- «AUTOMATIKOKI BALIOESTEKO IRIZPIDEAK»

19.2.3.1.- Agiri hauek izango ditu «C» gutun-azalak:

a) Proposamen ekonomikoa, II. eranskineko ereduaren araberakoa.

b) Unitateko prezioen zerrenda, hala badagokio.

c) Ezaugarri koadroaren 17.2 atalean adierazitako formulen bidez zenbatestekoak diren gainerako irizpideei buruzkoak.

19.2.3.2.- Proposamenak egokituko egingo zaizkio agiri honen VIII. eranskinean jasotzen den ereduari, eta baztertu egingo dira Administrazioak eskaintza kontuan hartze aldera funtsezkotzat hartzen duena argi eta garbi ezagutzea eragozten duten omisioak, akatsak edo ezabapenak dituen proposamenak. Lizitatzaileen eskaintza ekonomikoek, partida independente gisa, balio erantsiaren gaineko zergaren zenbatekoa adierazi beharko dute, zenbateko hori jasanarazi behar den kasuan.

19.2.3.3.-Bai eskaintza ekonomikoa bai «C» gutun-azalean jasotako bestelako dokumentazioa ezaugarrien koadroaren 17. atalean adierazten diren irizpideen arabera ebaluatuko dira.

19.2.3.4.- Eskaintzaren batek lizitazio oinarriaren aurrekontua gainditzen badu, ezarritako eredua nabarmen aldatzen badu, eskaintzaren zenbatekoan akats nabaria badu edo enpresa lizitatzaileak berak aitortzen badu akatsak dituela eta ez dela bideragarria, kontratazio mahaiak baztertu egingo du ebazpen arrazoitu bat emanez. Aldiz, ereduko hitz batzuk aldatzea edo kentzea ez da nahiko arrazoi izango proposamena baztertzeko, baldin eta ez badute ereduaren zentzua aldatzen.

19.2.3.5.- Ezaugarrien koadroaren 11. atalak aldaerak aurkezteko baimena ematen duenean, oinarriari dagokion eskaintza ekonomikoaz gain, gutun-azal elektroniko honetan aldaera bakoitzeko eskaintza ekonomiko bat sartu ahal izango da. Aldaera bakoitzari dagokion eskaintza ekonomikoa agiri honen VIII. eranskineko ereduaren arabera egingo da, eta atal horretan adierazitako kontzeptuak eta baldintzak jasoko ditu.

20. AURKEZTUTAKO GUTUN-AZALEN IREKITZEA ETA ESKAINTZAK BALIOESTEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitzen denean, honako jardun hauek egingo dira:

20.1.- <u>«A» gutun-azala ireki.</u>

20.1.1.- Mahaiak «A» gutun-azala irekiko du, eta hartan sartutako dokumentazioa kalifikatuko du.

20.1.2.- SPKLren 141.2 artikulua aplikatuz, mahaiak, zuzentzeko moduko akatsak aurkitzen baditu dokumentuetan, ukitutako lizitatzaileei jakinaraziko die hori, eta hiru egun naturaleko epea emango die akatsok zuzentzeko.

Halaber, aurkeztutako dokumentazioari buruzko dokumentazio osagarria edo argigarria eskatu ahal izango die mahaiak lizitatzaileei, eta bost egun naturaleko epea emango die aurkezteko.

Interesdunei jakinarazpen elektronikoz emango zaie aditzera akatsa edo hutsa ikusi dela, baita dokumentazio osagarria aurkezteko eskaera.

20.1.3.- Azkenean kontratazio mahaiak zehaztu egingo du zein lizitatzaile onartzen dituen lizitazioan eta zein uzten dituen kanpoan, horietarako arrazoiak ere emanda.

20.2.- «B» gutun-azala ireki.

20.2.1.- Haien aurkezpena nahitaezkoa denean, «BALIO-IRITZIEN BIDEZKO BALIOESPEN-IRIZPIDEAK» izenarekin identifikatutako «B» gutun-azal elektronikoak irekiko dira.

Ekitaldi horretan, automatikoki kuantifikatu ezin diren irizpideei dagokien gutun-azal elektronikoa baino ez da irekiko, eta balorazioaz arduratuko den organoari bertan jasotako dokumentazioa entregatuko zaio horien edukia ezaugarrien koadroaren 17.1. atalean adierazitako irizpideen arabera ebaluatu dezan.

Balio-iritzien bidezko balioespen-irizpideak haztapen osoaren % 50 baino gehiago direnean, prestakuntza egokia duen aditu batzorde batek egingo du B» gutun-azal elektronikoaren aurretiazko ebaluazioa, edo organismo tekniko espezializatu batek. Horrelakoetan, ezaugarrien koadroaren 17.1. atalean jasoko da aditu batzordea osatzen duten pertsonek, edo ebaluazioa egingo duen organismo tekniko espezializatua.

20.2.2.- Lizitazio prozeduratik kanpo geratuko dira eskatzen diren baldintza teknikoak betetzen ez dituzten eskaintzak eta «B» gutun-azal elektronikoetan formulen aplikazioaren bitartez ebaluatu beharreko informazioa («C» gutun-azal elektronikoa) sartzen dutenak.

20.3.- «C» gutun-azala ireki.

«B» gutun-azaleko dokumentazioa ireki eta balioetsi ondoren, kontratazio-mahaiak «C» gutun-azala irekiko du, kontratatzaile-profilean argitaratuko den egunean eta orduan.

Ekitaldi horretan, jakinaraziko da zer balioespen eman zaion balio-iritzi baten araberako irizpide bakoitzari.

Gutun-azal elektroniko horietan jasotzen den dokumentazioa ezaugarrien koadroaren 17.2. atalean adierazten diren irizpideekin bat ebaluatuko da.

SPKLren 149. artikuluan xedatutakoaren arabera, nabarmenki baxuegitzat jotzeko moduko eskaintzaren bat identifikatuz gero, eskaintza nabarmenki baxuegitzat jotzeko, aldez aurretik, entzun egin behar zaio eskaintza aurkeztu duen lizitatzaileari (edo lizitatzaileei), eta dagokion zerbitzuak aholkularitza teknikoa eman beharko du.

20.4.- Eskaintzak sailkatu.

Irizpide guztiak balioetsi ondoren, aurkeztutako proposamenak puntuazio handienetik txikienera sailkatuko ditu kontratazio-mahaiak, eta, egin beharreko jarduketak egin ondoren, kontratua adjudikatzeko proposamena aurkeztuko dio kontratazio-organoari.

Kontratua adjudikatzeko proposamenak ez du inolako eskubiderik sortuko proposatutako lizitatzailearen alde; ez du eskubiderik eskuratuko administrazioaren aurrean harik eta kontratua formalizatu arte.

Kasu horretan, lizitatzaileak emandako arrazoiak eta eskatutako txostenak aintzat hartuta, administrazioaren nahierara betetzeko gaitasuna dutela irizten zaien proposamenetatik ekonomikoki onuragarrien denari adjudikatzea erabakiko du kontratazio-organoak.

Kontratazio-organoak uste badu eskaintza ezin dela bete balio nabarmenki baxuegiak izateagatik, sailkapenetik baztertuko du, eta eskaintzarik onenari adjudikatzea erabakiko du, proposamenak sailkatu diren ordenari jarraituz.

Egindako jardun guztien berri emango da espedientean, eta aktetan jaso, nahitaez idatzi beharko baitira aktak.

20.5.- Lehen sailkatuari errekerimendua egin.

Aurreko jardunak egin ostean, kontratazio-zerbitzuek errekerimendua egingo diote lehen sailkatuari ekintza hauek egiteko edo dokumentu hauek aurkezteko, hamar egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera:

a) **Jarduteko gaitasuna eta jarduera eremua egiaztatzen duten dokumentuak.** Enpresa pertsona juridikoa bada, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatutako eraketa edo, hala badagokio, aldaketa eskrituraren bidez egiaztatuko da jarduteko gaitasuna, baldin eta aplikagarri zaion merkataritza legeriaren arabera inskripzio betebehar hori galdagarria bada. Erregistroan inskribatuta egote hori derrigorrezkoa ez bada, jarduteko gaitasuna eraketaren eskritura edo agiriaren, estatuen edo fundazio aktaren bitartez egiaztatuko da, horretan jasota egongo baitira pertsona juridikoaren jarduera erregulatzen duten arauak. Horiek, hala dagokionean, dagokien erregistro ofizialean inskribatuta egongo dira.

Pertsona juridikoei ez zaie kontraturik adjudikatuko, baldin eta estatutuen edo sorrerako araudiaren arabera berezko dituzten helburuak, objektua edo jarduera esparrua kontratuaren prestazioekin bat ez badatoz. Hori guztia aurkezten den dokumentazioan egiaztatu beharko da.

Enpresa pertsona bakarrekoa denean, nortasun agiria edo haren ordez balio duen dokumenturen bat aurkeztu behar da.

Enpresariak espainiarrak ez badira baina bai Europar Batasuneko kide den beste estatu bateko herritarrak, dagokien erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute, egoitza daukaten estatuko legerian ezarritakoaren arabera, edo erantzukizunpeko adierazpen baten edo egiaztagiri baten bidez, aplikatzekoak diren Europar Batasuneko xedapenei jarraituz.

Atzerriko gainerako enpresaburuek, jarduteko gaitasuna dutela egiaztatzeko, Espainiak dagokion estatuan duen Diplomazia Misio Iraunkorraren txostena aurkeztu beharko dute, edo enpresaren egoitza dagoen lurraldeko Kontsuletxeko Bulegoaren txostena.

b) Hala dagokionean, **ordezkaritza egiaztatzen duten agiriak**. Beste baten izenean aurkezten diren edo proposamenak izenpetzen dituzten pertsonek nortasun agiriaren kopia aurkeztuko dute, horretarako askietsiriko ahalordearekin batera.

Ordezkari horrek NANik ez badu, erregelamenduz hura ordezkatzen duen dokumentuaren fotokopia aurkeztu beharko du, notarioak legitimatua edo dagokion organismo administratiboak konpultsatua.

Enpresa pertsona juridikoa bada, ahalordeak Merkataritza Erregistroan erregistratuta egon behar du. Alabaina, egintza konkretu baterako ahalordea bada, ez da beharrezkoa izango Merkataritza Erregistroan inskribatuta egotea, betiere Merkataritza Erregistroaren Erregelamenduaren 94.1.5. artikuluan xedatutakoaren arabera.

c) Jarduera ekonomikoen gaineko zergan kontratuaren xedeari dagokion epigrafean alta emanda dagoela egiaztatzen duen dokumentazioa, alta-agiria aurkeztuz, urteko ekitaldikoa bada, edo ekonomia-jardueren gaineko zergaren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Betiere, zerga horren matrikulan bajarik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du.

d) Kaudimen ekonomiko-finantzarioa eta tekniko edo profesionala, ezaugarrien koadroren 14. atalean zehaztutako bitartekoak erabiliz.

Ezaugarrien koadroaren 12.5. atalean horrela aurreikusten bada, ingurumen kudeaketako arauak eta kalitate bermearen ingurukoak betetzen direla egiaztatu beharko da. atal horretan adierazten den moduan.

Kaudimena kanpo bitartekoak erabiliz egiaztatzeko (SPKLren 75. artikulua), frogatu egin beharko da egiaz badirela kontratua egikaritzeko pertsona eta material aldetiko bitartekoak, beste entitate horiek idatziz hartutako konpromisoa aurkeztu beharko baita.

Esleipendunak kaudimena egiaztatzeko aurkeztu dituen bitarteko berberak erabili beharko ditu kontratua gauzatzeko. Aurreikusi ezin diren arrazoiengatik bakarrik ordeztu ahal izango ditu, kaudimen baliokidea egiaztatzen duten beste bitarteko batzuekin eta, betiere, Debako Udalaren dagokion baimenarekin.

e) Kontratuaren xedea den prestazioa emateko enpresa edo lanbide gaikuntza egiaztatzea. Kontratatzeko gaitasunerako baldintzatzat legez galdagarria baldin bada, kontratuaren xedea den prestazioa emateko behar den enpresa edo lanbide gaikuntza egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da.

f) Giza baliabideak eta bitarteko materialak egiaz badituela egiaztatzen duen dokumentazioa, ezaugarrien koadroaren 13. atalean jasotako profilak eta zehaztapenak betez.

g) Zergen eta Gizarte Segurantzaren inguruko betekizunetan egunean egoteari buruzko ziurtagiriak, edo baimena eman kontratazio-organoari informazio hori zuzenean jasotzeko.

h) Behin betiko bermea eratu izanaren egiaztagiria.

Aurreko a), b), eta d) letretan adierazitako baldintzak Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroaren edo Estatuko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialaren ziurtagirien bidez froga daitezke, edo Europar Batasunaren ziurtagiri baten bidez, SPKLren 96. eta 97. artikuluetan ezarritakoari jarraituz. Apartatu honetan aipatutako ziurtagiriak elektronikoki eman daitezke.

Ziurtagiriekin batera, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, non azalduko den ziurtagirian adierazitako zirkunstantziak ez direla aldatu.

Eskatutako agiriak adierazitako epe horretan aurkezten ez badira, lizitatzaileak eskaintza erretiratu duela joko da. Hori gertatzen bada, puntuazioaren arabera antolatutako eskaintzen zerrenda hartu eta haren ondorengo lizitatzaileari eskatuko zaio lehen aipatutako agiri horiek aurkez ditzala.

Apartatu honetan aipatutako errekerimenduaren ondoren aurkeztutako dokumentazioak zuzentzeko moduko akatsik baldin badu, hiru egun naturaleko epea emango zaio hura zuzentzeko.

21. ESLEIPENA ETA FORMALIZAZIOA

21.1.- Kontratuaren esleipena.

Kontratazio-organoak eskaintzarik onena egiten duen lizitatzaileari kontratua esleituko dio aurreko klausulan aipatzen den dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun balioduneko epean, SPKLren 150.3 artikuluak xedatutakoari jarraituz.

Lizitatzaile guztiei emango zaie esleipenaren berri, eta kontratatzaile-profilean argitaratuko da.

21.2.- Kontratuaren formalizazioa.

21.2.1.- Lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokituko den administrazio-dokumentu baten bidez formalizatuta burutuko da kontratua; dokumentu hori nahikoa titulu izango da edozein erregistro publikotan aurkezteko. Nolanahi ere, kontratua eskritura publiko bihurtzeko eska dezake kontratistak, eta, orduan, bere kontura izango dira eskritura publikoak egiteak sortutako gastuak.

Esleipenduna aldi baterako enpresa elkartea baldin bada, elkartearen eraketaren eskritura publikoa, elkarteari eman zaion IFZ eta ahalorde nahikoa duen ordezkariaren izendapena aurkeztu beharko da kontratua sinatu aurretik.

21.2.2.- Baldin eta SPKLren 44.1 artikuluaren arabera kontratazio-arloan errekurtso berezia izan dezakeen kontratua bada, ezin izango da formalizatu harik eta hamabost egun balioduneko epea igaro arte, lizitatzaileei eta hautagaiei esleipenaren berri emateko jakinarazpena igortzen zaienetik. Epe horretan errekurtsoa jarriz gero, kontratazio-prozeduraren izapidetzea eten egingo da errekurtsoa ebatzi arte. Hamabost eguneko epe horretan errekurtsorik jarri ez bada, esleipendunari eskatuko zaio kontratua formaliza dezala gehienez ere bost egun naturaleko epean, horretarako errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Berdin jokatuko du, errekurtsoa ebazteko eskumena duen organoak etenaldia bertan behera uzten duenean.

Bestelako kasuetan, kontratua formalizatuko da esleipenaren jakinarazpenean adierazitako epean. Epe hori, gehienez ere, hamabost egun baliodunekoa izango da, lizitatzaileei eta hautagaiei esleipenaren jakinarazpena egiten zaien egunaren ondorengotik kontatzen hasita.

21.2.3.- Esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla eta kontratua ez bada formalizatu adierazitako epearen barnean, lizitazioko oinarrizko aurrekontuaren %3 eskatuko zaio, BEZa kanpo, zigor kontzeptuan; zenbateko hori jasotzeko, behin betiko bermera joko da lehenik, horrelakorik eratua den kasuetan. Horretaz gain, kontratatzeko galarazpena ere ezarri ahal izango zaio, SPKLren 71.2.b) artikuluan aurreikusiarekin bat.

Kasu horretan, kontratua hurrengo lizitatzaileari esleituko zaio, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkerari jarraituz. Horretarako, aurreko klausulan ezarritako dokumentazioa aurkeztu beharko du hark aurrez, eta aurreko apartatuan ezarritako epeak izango dira aplikatzekoak.

Kontratua ez formalizatzeko arrazoiak Administrazioari egozteko modukoak badira, berandutzeak eragindako kalteen ordaina emango zaio kontratistari.

21.2.4.- Kontratuaren formalizazioari publizitatea emango zaio, SPKLren 154. artikuluan xedatutakoaren arabera.

22.KONTRATUA EZ EGITEKO ERABAKIA ETA PROZEDURAN ATZERA EGITEA

SPKLren 152. artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratazio-organoak kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia hartu ahal izango du, behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiak direla eta. Halaber, prozeduran atzera egin ahal izango du baldin eta zuzendu ezin daitekeen arau-hausteren bat atzematen badu kontratua prestatzeko arauei edo adjudikazio-prozedura erregulatzen duten arauei dagokienez. Kontratua ez egiteko erabakia hartzekotan edo prozeduran atzera egitekotan, kontratua formalizatu aurretik egin behar da, betiere aipatutako artikuluan ezarritako betekizunen arabera.

III. KONTRATUA EGIKARITZEA

23. KONTRATUA EGIKARITZEAREN ARAUBIDE OROKORRA

23.1.- Kontratistaren gain eta galorde joango da kontratuaren egikaritzea, agiri honetan jasotako klausulei eta preskripzio teknikoen agirian jasotako klausulei jarraituz. Administrazioak lanak zuzendu, ikuskatu eta kontrolatuko ditu, eta ahalmen horiek idatziz zein ahoz erabili ahal izango ditu.

23.2.- Kontratistari edo haren agindupeko pertsonaren bati egotz dakiokeen egintza edo ez-egite baten ondorioz arriskuan jartzen bada kontratua egokiro egikaritzea, administrazioak agindu ahal izango du beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela kontratuaren egikaritze egokia lortzeko edo berrezartzeko.

23.3.- Kontratuak herritarren onurarako zuzeneko prestazioak badakartza, betebehar hauek izango ditu kontratistak:

a) Zerbitzua hitzartutako jarraitutasunaz eskaini behar du, eta partikularrei bermatu behar die zerbitzua erabiltzeko eskubidea xedatutako baldintzen arabera, eta ezarritako ordain ekonomikoaren truke, hala badagokio.

b) Zerbitzua ondo dabilela zaintzea.

c) Zerbitzuaren funtzionamenduak eskatzen dituen eragiketek hirugarrenei eragiten dizkieten kalteak ordaindu beharko ditu, salbu eta administrazioari egotz dakizkiokeen kausek eragin badute kaltea.

23.4.- Kontratistaren ez-betetze baten ondorioz zerbitzua larri nahasten bada, beste bitarteko batzuez ezin bada konpondu, eta administrazioak kontratua suntsiaraztea erabakitzen ez badu,

administrazioak erabaki ahal izango du hura bahitzea edo atzematea harik eta nahasmendu hori amaitzen den arte. Nolanahi ere, benetan sortutako kalte eta galerak ordaindu beharko dizkio kontratistak administrazioari.

23.5.- Administrazioak beretzat gordeko ditu zerbitzuak ondo funtzionatzea bermatzeko behar diren zaintza-ahalak.

24. KONTRATUA EGIKARITZEKO BALDINTZA BEREZIAK

SPKLren 202.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ezaugarrien koadroaren 19. atalean aurreikusitakoez gain, kontratu hau egikaritzeko ondoren adierazten diten egikaritze-baldintza bereziak eskatuko dira.

Baldintza horiek guztiak funtsezko kontratu-betebeharra dira; horrenbestez, SPKLren 201 artikuluan xedatutakoaren arabera, hori ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoitzat jo ahal izango da SPKLren 211.1.f) artikuluan adierazitako ondorioetarako.

24.1.- Lan eta gizarte arloko betebeharrak.

24.1.1.- Betebehar orokorrak.

a) Kontratista behartua dago lanaren, gizarte-segurantzaren zein laneko segurtasunaren eta higienearen arloan indarrean dauden lege-xedapenak betetzera, bai eta enpresa kontratistaren jarduera sektorearen maila txikieneko esparruko azken hitzarmen kolektiboan ezarritakoak ere; betiere, eragotzi gabe indarrean egon daitezkeen eta aipatutako hitzarmena hobetzen duten enpresaren beste hitzarmen edo itun batzuek ezarritakoak.

b) Kontratuaren indarraldi osoan zehar, enpresa kontratistak kontratura atxikitako langileen lan baldintzak mantendu beharko ditu, eta ezingo ditu lan baldintza horiek okerragotu; nahiz eta aurrerago lan hitzarmenaren indarraldia amai daitekeen. Edonola ere, lan baldintzak mantendu direla ulertuko da baldin eta lan baldintzak aldatzen badira enpresa kontratistaren eta langileen ordezkaritzaren arteko adostasunaren bidez. Hala ere, soldata baldintzak ezingo dira inola ere alorreko hitzarmen kolektibo aplikagarrian xedatutakoak baino apalagoak izan. Kontratistak egoera hori egiaztatzeko behar den informazio edo dokumentazioa aurkeztu beharko dio kontratazio organoari.

c) Azpikontrataziorik egiten bada, klausula honetan xedatutakoa bete beharko du enpresa azpikontratistak. Azpikontratatutako jarduerari hasiera eman baino lehen, enpresa kontratistak egiaztatuko du azpikontratatutako enpresako langile guztiak Gizarte Segurantzan alta emanda daudela, eta horren berri emango dio kontratazio organoari.

d) Esleipendunak laneko segurtasun eta arriskuen prebentzioko esparruan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu, baita lan-hitzarmen aplikagarritik eratorritakoak ere.

e) Esleipendunak nahitaezko edo beharrezko laneko segurtasun eta higiene neurriak hartu beharko ditu, kontratuaren xedeari lotuta dauden langileen osotasun eta osasunarentzat sor daitezkeen arriskuei aurrea hartzeko.

f) Esleipendunak beste enpresa bat azpikontratatzen badu kontratuaren xedearen zatiren bat egiteko, esleipendunak bereziki bermatu beharko du azpikontratistak laneko segurtasun eta osasun esparruko betebehar guztiak betetzen dituela, eta zehazki, prebentzio jardueren koordinazioari eta beharrezko prebentzio baliabideak eskuragarri jartzeari buruz, araudiak xedatutakoa betetzen direla.

g) Baldin eta, enpresa kontratistak edo, hala badagokio, azpikontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik, Debako Udala zigortzen badute ez-betetze horren ondorioz sortutako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera, ondorio horiek kontratistari jasanaraziko dizkio. Horretarako, administrazio kontratatzaileak beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

24.1.2.- Subrogazio kasuetako betebeharrak.

a) Ezaugarrien koadroaren 24. atalean horrela jasotzen bada, kontratistak enplegatzaile gisa subrogatzeko betebeharra izango du kontratuaren xede den zerbitzua ematen ari diren langileekiko lan-harremanetan. Agiri honen IX. eranskinean jasotzen da subrogatu beharreko langileen zerrenda (zerbitzua eman duen enpresak aurkeztutako zerrenda) eta haien lan-baldintzei buruzko informazioa. Kontratistak subrogatzeko dituen betebeharrak bete ezean, agiri honetako 26. klausulan adierazitako zigorrak aplikatuko zaizkio.

b) Baldin eta subrogazioa gertatu ondoren lan kostuak handiagoak badira aurreko kontratistak kontratazio organoari emandako informazioaren arabera dauden kostuak baino, kontratista berriak zuzenean aurreko kontratistaren aurka egin dezake.

c) SPKLren 130. artikuluan ezarritakoaren arabera, prestazioa uzten duen kontratistak erantzungo du subrogazioak eragindako langileei ordaindu gabe utzitako soldatez eta Gizarte Segurantzako kotizazioez, nahiz eta kontratua suntsiarazi eta horiek kontratista berriak subrogatuko balitu ere, eta, kasu horretan, betebehar hori ez legokioke inola ere kontratista berriari. Hala gertatzen bada, soldata horiek ordaintzeke daudela egiaztatuta, dagokien zenbatekoa atxikiko dio udalak aurreko kontratistari, soldatak ordaintzea bermatzeko, eta ez dio itzuliko behin betiko bermea harik eta ordaindu direla egiaztatu arte.

d) Baldin eta, dagokion kontratistak klausula honetan xedatutako betebeharrak ez betetzeagatik, Debako Udala zigortzen badute ez-betetze horren ondorioz sortutako ondorio ekonomikoak bere gain hartzera, ondorio horiek kontratistari jasanaraziko dizkio. Horretarako, administrazio kontratatzaileak beharrezko jarduketa administratibo edo judizialak egiteko eskubidea izango du, harik eta ordaindutako zenbateko osoa berreskuratu arte.

24.2.- Hizkuntza arloko betebeharrak.

a) Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, hain zuzen ere Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak 6. artikuluan ezarria eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta Debako Udalaren jarduera eremuan euskararen erabilera normalizatzeko indarrean dagoen planean arautua.

b) Ezaugarrien koadroan bestelakorik adierazten ez bada, enpresa esleipendunak bi hizkuntza ofizialetan entregatuko ditu kontratuaren objektua osatzen duten azterlan, txosten, proiektu eta bestelako lanak, software ezberdinen testu eta soinu interfazeak barne.

c) Diseinu eta jarduera guztien (errotuluetan, argitalpenetan, seinaleztapenetan, abisu eta komunikazioetan) planteamendua bi hizkuntzetan egin beharko da, hau da, euskaraz eta gaztelaniaz, dagokion jarduera egiteko orduan. Jarduera hori zuzendutako herritarren segmentua kontuan hartuta, euskarari lehentasuna ematea komeni dela ikusten den kasuetan euskara bakarrik erabiliko da, beti ere, herritarrek hizkuntza aukeratzeko eskubidea errespetatuz.

d) Euskararen erabilpena bermatuko da errotuluetan, argitalpenetan, seinaleztapenetan, abisu eta komunikazioetan, eta, oro har, solaskidetzan.

e) Kontratuak egikaritzeko orduan, hirugarrengoekin edo oro har herritarrekin harremanik eduki behar bada, kontratua egikaritzeko ardura duen enpresaren eta kontratua dela eta harremanak eduki beharreko hirugarren pertsonen arteko idatzizko eta ahozko komunikazioa egiteko orduan, erabiltzaileak edo hirugarren pertsonak kasu bakoitzean hautatutako hizkuntza erabiliko da.

24.3.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun arloko betebeharrak.

a) Esleipendunak, kontratua egikaritzeko orduan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko neurriak ezarri beharko ditu arlo hauetan: lanpostua eskuratzeko aukerak; sailkapen pertsonala; sustapena; iraupena; prestakuntza; lansariak; kalitatea eta lan egonkortasuna; jardunaldiaren iraupena eta antolaketa; baita kontratuari atxikitako langileen familia bizitza, lan bizitza eta bizitza pertsonala uztartzeko neurriak ere, hain zuzen ere martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoak xedatutako moduan.

b) Esleipendunak hizkera ez-sexista erabili beharko du kontratu hau egikaritzean sortzen den dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan. Halaber, emakumeen bazterketa iradokitzen duten irudiak edota estereotipo sexistak ekidin beharko ditu, eta berdintasun balioak, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzukidetasuna eta genero rol zein identitateen aniztasuna sustatu beharko ditu.

c) Esleipendunak bermatuko du sexu jazarpena eta sexu arrazoiek eragindako jazarpena prebenitzeko behar diren neurriak hartzen direla, hamar langiletik gora arituko diren kontratuetan.

25. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Ezaugarrien koadroaren 21. atalean kontratuaren aldaketak aurreikusten badira, kontratazio organoak kontratua aldatu ahal izango du puntu horretan adierazitako kasu eta baldintzatan, eta bertan jasotako eragin-esparru eta mugekin.

Dena den, kontratua aldatu ahal izango da, halaber, SPKLren 205. artikuluan esanbidez adierazitako baldintzetakoren bat betetzen bada, lege horren 203., 206. eta 207. artikuluetan xedatutakoari jarraituz, baldin eta horrekin aldatzen ez badira lizitazioaren eta adjudikazioaren funtsezko baldintzak.

Batean zein bestean, kontratazio-organoak erabakitako aldaketak nahitaezkoak izango dira kontratistentzat.

26. KONTRATUAREN LAGAPENA

Kontratuaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga diezazkioke kontratistak, baldin eta:

a) lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak erabakigarriak izan ez badira kontratua hari esleitzeko,

b) lagapenak merkatuan lehiaketa benetan murrizterik ez badakar,

c) lagapenak kontratistaren ezaugarrien aldaketa nabarmenik ez badakar, ezaugarri horiek kontratuaren funtsezko elementua diren kasuetan, eta

d) lagapena SPKLren 214.2 artikuluan jasotako baldintza eta betekizunekin bat badator.

Lagapen hartzailea lagatzaileari dagozkion eskubide eta betebehar guztietan subrogatuko da.

27. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratuaren ezaugarri koadroaren 15. atalean azpikontratazioa baimentzen bada, kontratistak prestazioaren gauzatze partziala azpikontratatu dezake hirugarren batzuekin. Nolanahi ere, azpikontratazioak bete beharko ditu 15. atal horretan eta SPKLren 215. eta 216. artikuluetan ezarritako eskakizunak.

28. KONFIDENTZIALTASUNA ETA IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA

28.1- Konfidentzialtasuna.

Bai kontratistak, bai kontratua betearazteari kontratistak atxikitako pertsonek eta, hala badagokio, bai azpikontratistek eskuratuko duten informazio guztia konfidentziala izango da, eta sekretu profesionalaren pean egongo da, aplika dakiokeen araudiaren arabera. Hori dela eta, ondo gorde beharko dira eta sekretupean zaindu, eta inola ere ez jakinarazi, ez zatika ez guztiz, kontratuaren parte ez diren pertsona fisiko edo juridikoei, kontratazio-organoak berariaz eta aldez aurretik baimenik eman ez badu. Eginbehar horiek kontratu-harremana eten ondoren ere bete beharko dira.

Aipatutako pertsona fisiko edo juridikoren batek konfidentzialtasun-eginbehar hori eta, hala badagokio, sekretu profesionalaren eginbeharra urratuz gero, aplika dakiokeen araudiaren arabera, dagozkion erantzukizunak eta kalte-galeren ordainketa eskatuko zaizkio.

Nolanahi ere, izaera pertsonaleko datuen tratamendua eskatzen ez duten lanak egitean, debekatuta egongo da datu horietarako irispidea izatea, eta edozein arrazoi dela-eta Debako Udalaren datu pertsonalak atzituko balituzte, sekretupean gorde beharko dira datu horiek eta bete

beharko dute Estatuko eta Europar Batasuneko datu babesari buruzko araudia, baita Debako Udalak ematen dizkion jarraibideak ere.

Enpresa kontratistak, edo bere zerbitzuko pertsonek edo berak azpikontratatutako pertsonak zein entitateek, klausula honen arabera beren gain hartutako betebeharrak ez betetzearen ondorioz, Debako Udala edozein kopuru ordaintzera zigortzen badute, ordaindutako zenbatekoa kontratistari jasanaraziko zaio, eta, ondorio horietarako, Debako Udalak egoki eta komenigarriak diren edozein ekintza administratibo edo judizial egiteko eskubidea izango du, ordaindutako zenbateko osoa erabat berreskuratu arte.

28.2.- Izaera pertsonaleko datuen tratamendua.

Kontratuaren ezaugarrien koadroaren 14. atalean jasotzen bada kontratazio honek izaera pertsonaleko datuak eskuratu beharra eragiten duela, kontratista izango da datuen tratamendu-eragilea eta izaera pertsonaleko datuak behar bezala tratatu eta babestuko ditu. Horretarako, bete beharko ditu Estatuko eta Europar Batasuneko datu babesari buruzko araudia baita Debako Udalak ematen dizkion jarraibideak.

Agiri honen X. eranskinean jasotzen dira kontratistak egin beharko duen tratamendua eta ezarri beharko dituen neurriak.

Klausula honetako betebeharrak eta aipatutako X. eranskina dira, izan ere, Europar Batasuneko datu babesari buruzko Erregelamendu Orokorraren (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamendua) 28.3 artikuluan eskatzen den tratamenduaren enkargu-kontratua, tratamenduaren organo arduradunaren eta kontratistaren artean sinatu behar dena tratamendu-eragile gisa jarduten duenean.

29. PRESTAZIOA HARTZEA ETA BERMEALDIA

29.1.- Prestazioa hartzea.

a) Kontratuaren xede den prestazioa sinatuko den kontratuan ezarritako epearen barruan eman beharko du enpresa kontratistak.

b) Kontratua betetzat joko da, xede duen prestazioa oso-osorik kontratuan eta baldintza eta preskripzio agirietan ezarri bezala eta Debako Udalaren adostasunarekin egikaritu duenean. Horretarako, kontratuaren arduradunak eginiko lanak aztertuko du eta, preskripzio teknikoak eta administrazio klausulak bete direla uste badu, zerbitzuen harrera egitea proposatuko du.

c) Kontratuaren xede den prestazioa amaitu eta gehienez hilabeteko epean, haren harrera-ekitaldi formal eta positiboa gauzatuko da. Dena den, ezaugarri koadroaren 4.2 atalean epe partzialak ezartzen badira harrera partzialak egin ahal izango dira bereizita erabili daitezkeen kontratuaren zatien gainean.

29.2.- Berme epea

a) Berme epea ezaugarrien koadroaren 4.4 atalean ezarritakoa izango da edo, bestela, esleipendunak eskainitakoa.

Epe horretan egiaztatzen bada egindako lanetan ezkutuko akats edo okerren bat dagoela, Debako Udalak eskubidea izango du kontratistari haiek konpontzea erreklamatzeko. Kontratistak eskubidea izango du kontratupeko prestazioa betetzearen inguruan egiten diren oharren inguruan entzuna izateko.

b) Berme epe hori igarotzen bada administrazioak eragozpenik jarri gabe, amaitutzat joko da kontratistaren erantzukizuna, araudian jasotako berezitasunak eta salbuespenak eragotzi gabe.

c) Berme eperik aurreikusi ez denean, jarduera soileko kontratuak epea betetzeagatik iraungiko dira, baina horrek ez du eragotziko Administrazioak eskumena izatea kontratistari erantzukizuna eskatzeko, ondoren hautematen den balizko edozein ez-betetzegatik.

30.- JABETZA INTELEKTUALAREN EDO INDUSTRIALAREN ESKUBIDEAK

Baldin eta kontratuaren xedea bada jabetza intelektual edo industrialaren eskubide batek babestutako produktuak garatzea eta eskura jartzea, hark berekin ekarriko du eskubide horiek Debako Udalari lagatzea.

31. ZIGORRAK KONTRATUA EZ BETETZEAGATIK.

31.1.- Kontratua egikaritzeko epeak ez betetzea.

Kontratista, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, berandutzen bada kontratua egikaritzeko epean (epe osoa zein, halakorik bada, epe partzialak), administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua suntsiaraztea (eta adjudikaziodunak bermea galdu), edo honako zigor hau ezartzea: zerbitzua behar bezala ematen berandutzen den eguneko 0,60 euro kontratuaren prezioko 1.000 euroko (BEZa aparte).

Berandutzeagatik ezartzen diren zigorren zenbatekoa kontratuaren prezioaren % 5en multiplo batera heltzen den bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua suntsiarazteko, edo, bestela, kontratua egikaritzen jarrai dadin agintzeko, zigor gehiago ezarrita.

31.2.- Prestazioen egikaritze partziala ez betetzea.

Kontratistak ez badu betetzen kontratuan zehaztutako prestazioen egikaritze partziala, eta horren errua berari egozten ahal bazaio, administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua suntsiaraztea, edo, bestela, kontratuaren prezio osoaren % 10en baliokidea den zigorra ezartzea.

31.3.- Prestazioa oker gauzatzea.

Prestazioa oker gauzatzen bada, administrazioak zigorrak ezarri ahal izango ditu; horietako bakoitzaren zenbatekoa ez da izango kontratuaren prezioaren % 10etik gorakoa (BEZa aparte), eta guztirako zenbatekoak ezin izango du gainditu hitzartutako prezioaren % 50.

31.4.- Ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloko betebeharrak ez betetzea.

Kontratistak ez baditu betetzen ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloko betebeharrak, batez ere soldatak ordaintzen behin eta berriro atzeratzen bada edo hitzarmen kolektiboetatik eratorritakoak baino soldata-baldintza okerragoak doloz eta era larrian aplikatzen baditu, SPKLren 201. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, administrazioak zigorrak ezarri ahal izango dizkio ez-betetze horietako

bakoitzagatik; horietako bakoitzaren zenbatekoa ez da izango kontratuaren prezioaren % 10etik gorakoa (BEZa aparte), eta guztirako zenbatekoak ezin izango du gainditu hitzartutako prezioaren % 50.

31.5.- Azpikontratistekiko betebeharrak ez betetzea.

SPKLren 217. artikuluan xedatutakoa gorabehera, kontratistak azpikontratistekin dituen betebeharrak betetzen ez baditu, administrazioak zigorrak ezarri ahal izango dizkio ez-betetze horietako bakoitzagatik; bakoitzaren zenbatekoa ez da izango kontratuaren prezioaren % 10etik gorakoa (BEZa aparte), eta guztirako zenbatekoak ezin izango du gainditu hitzartutako prezioaren % 50.

31.6.- Langileak subrogatzeko betebeharrak ez betetzea.

Kontratistak ez baditu betetzen kontratuaren xede den zerbitzuak ukitutako langileak subrogatzearen arloan dituen betebeharrak, SPKLren 130.4 artikuluan ezarritakoa aplikatuz, administrazioak zigorrak ezarri ahal izango dizkio ez-betetze horietako bakoitzagatik; bakoitzaren zenbatekoa ez da izango kontratuaren prezioaren % 10etik gorakoa (BEZa aparte), eta guztirako zenbatekoak ezin izango du gainditu hitzartutako prezioaren % 50.

32. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK

Kontratua suntsiarazteko arrazoiak SPKLren 211. eta 313. artikuluetan ezarritakoak izango dira.

ERANSKINEN ZERRENDA

I. eranskina.- Lizitazio elektronikorako jarraibideak.

II. eranskina.- Jakinarazpen eta komunikazioak jasotzeko datuak.

III. eranskina.- Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB) betetzeko jarraibideak.

IV. eranskina.- Aldi baterako enpresa elkartea eratzeko konpromisoaren eredua.

V. eranskina.- Bitartekoak atxikitzeko konpromiso adierazpenaren eredua.

VI. eranskina.- Enpresa taldeari buruzko adierazpen eredua.

VII. eranskina.- Konfidentzialtzat jotako dokumentu eta datuei buruzko adierazpen eredua.

VIII. eranskina.-Eskaintza ekonomikorako eta formula bidez ebaluatzeko eskaintzako beste elementuetarako eredua.

IX. eranskina.- Subrogaziorako datuak.

X. eranskina.- Izaera pertsonaleko datuen tratamenduaren enkargu-kontratua.